

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazioa:

Gure proiektua aplikazio bat da eta aplikazio hori bezeroek ezagutzeko, ahoz-ahoko komunikazioa erabiltzen saiatuko gara, gure ingurukoei gure proiektuaz hitz eginez eta beraien inguruan zabalduz. Horrez gain, jubilatuen elkarteetan, familia medikuetan, zahar egoitzetan... ere iragarriko dugu. Aplikazioa merkaturatzean, zonalde ezberdinetan iragarkiak jarriko ditugu, lehen aipatu dugun bezala, hala nola, metro geltokietan, autobus geltokietan eta adin nagusiko pertsonen maiztasunez bisitatzen dituzten lekuetan. Iragarki hauek, adin nagusiko jendeak sarri bisitatzen dituen lekuetan egongo lirateke, eta erakargarriak izango dira begi bistan. Horrela, iragarkia ikustera hurbilduko dira eta bere berri izango dute.

Aplikazioak notifikazioa bidaliko dizkie erabiltzaileei gogokoak izan daitezkeen planen berri jaso dezaten. Horretaz gain, SMS edo WhatsApp baten bidez ere ekitaldiaren berri emango ditu, ekitaldia ez galtzeko. Gainera, ekitaldian ezagutzen duten jendearekin harremanetan jarraitzeko erraztasunak eskainiko ditu, hala nola, txat bat.

Kanalak:

Banaketari dagokionez, gure aplikazioa online izango denez, "App Store" eta "Play Store" plataformetan egongo da eskuragarri edo mugikorrek aplikazioak jeisteko dauzkaten aplikazioan. Aplikazio honen bidez, gure bezeroak gure aplikazioa ikusi eta bere mugikorrean jeitsi ahal izango du. Beraz, aplikazioa mugikorrean izateko egin beharko den bakarra, mugiorreko aplikazioen dendan gure aplikazioaren izena bilatu eta mugikorrean jeitsi beharko du.